
A decorative graphic on the left side of the page, resembling the spiral binding of a notebook. It consists of a series of dark, circular loops connected by a thin, light-colored line, extending vertically from the top to the bottom of the page.

**Egun batean,
Philosophiko irakaslea
ez ohiko gauza eli
batekin ikasleen
parean agertü eta
mahai gainean üzten
dütü.**




**Behazaleen ixiltarzüna
kausitürik da.**

**Irakasleak ontzi handi
bat hartzen dü (hütsik
eta xahü) eta sei/zazpi
zm-ko harriekin
betetzen hasten da.**




**Ontzia beterik delarik,
irakasleak galtatzen deie
beterik denez ikasleer.**

**Ikasleek baietz erraiten
deioe (Ikasleek baiezkoa
emaiten deioe)**



**Irakasleak harri ttipi
zakutto bat hartzen dü
eta ontzian ixurtzen dü.
Dena iharrausten dü,
berdintzeko, eta hola
harrixkek hutsuneak
betatzen dütüe.**




**Eskukatze hori urrentü
ondoren, ontzia ontsa
beterik denez beste
behin galde egiten dü
irakasleak.**

**Gelak harritürik eta erri
karkazaz baietz
ihardesten dü.**

Irakasleak haina zakü ttipi bat hartzen dü eta ontzian isurtzen dü. Prefosta, haina orano beterik ez diren arteetarik iragaiten da, ikasleen plazerrarentako.


« Soizüe, züen biziari konpara ezazüe » irakasleak ikasleer dioe.

**Harri lodiek , haurrak,
osagarria, senarremaztea,
familia bezalako gaüzak
zinez inportantak
erakusten dütüe. Gaüza
horiekin, züen bizia beti
hain beterik dateke, oro
galtzen baldin badüzüe
ere.**




**Harrittoek, aldiz, lana, etxea,
autoa bezalako gaüza
inportantak bena ez
baitezpadakoak dira.**

**Azkenik, haina inportantziarik
gabeko gaüzekin erkatzen ahal
dütügü.**



**Haina ezarten badüğü
lehenik, ontzian ez
date haboro lekürük
harri lodientako edo
harrittoentako.**

A decorative graphic on the left side of the slide, resembling a spiral-bound notebook. It features a vertical metal spiral binding on the left edge, with the spiral winding inwards. The background of the notebook is a light beige color, and the entire graphic is set against a dark brown border.

**Zure bizian ber gaüza da: gastatzen
badüzüe züen disponibilitatea eta
agoiñua (energia) gaüza ttipientako,
ez zaizüe baratüko aski denborarik
ez eta aski lekürik, gauzä
inportanteentako (garantzitsuak)
zure zorionarentako**



Jolasta zitee zure haurrekin,

har ezazüe denbora züen

osagarria zaintzeko,

elk zitee zure bizi lagünareki,


mintza zitee züen burasoeki.

Beti izanen da aski denbora

aspiragailüa konpontzeko


administrazio paperren ürrentzeko

edo autoa xahatzeko.




**« Lehenik arta harri lodiak,
horiek beitira gaüza
inportantak. Arrestakoa ,
haina baizik ez da,
eskapatzen dena erhien
artetik »**

**Orai arte dena ontsa
da: « Zoin arrazoin düan,
zoin züzen eta eijerra den
predeikü hau, etabar »**



**Bena bat batean ikasle
bat jeikitzen
da. Erakaslearen
bulegotik hullantzen
da eta hartzen dū
ontzia. Alta denak ados
ziren erraiteko ontzia
osoki betea zela.**



**Ordüan ikasleak hartzen
dü Pastis godaleta bat
besten aitzinean eta
ixurtzen dü ontzilat. Gisa
hortan, likidoa sartzen
da xilo oroetatik .Eta bai!
baziren orano xiloak.**

Erakaspena

**« Zure bizia oso
beterik izanik ere,
izanen da beti lekü bat
aperitifarentako ! »**